

www.noa.ia.com

# Nu!



Gora Santixabel!



Kezka nagusi  
**Zubietan**

ALKARTASUNA kooperatiba

Aginaga  
Aialde berri


Herriko sagardo guzti  
-guztiak salgai

Araeta  
Arratzain




Gorostidi  
Iruin  
Saizar  
Urdaira

Ugarte industrialdea, 12 - Telf: 943 36 11 14  
E-mail: alkartasuna@fcae.org




**BORDATXO**


**BORDATXO**




**BORDATXO**




**BORDATXO**




*Santixabeletan jai-jai gu ere bai*




**BORDATXO**



**BORDATXO**




**BORDATXO**



**BORDATXO**

Zubiurrena, 5 943 371 047

Alperroburu, 1 943 366 171



# Intza ileapaindegia

Ileko tratamenduak: kaspia, ile  
erorketak...

**Etorri gure promozioak ikustera**

Depilazioak argazari beroarekin  
Depilazioak argizari epelarekin  
Gorputzeko tratamenduak

Masajea  
Solariuma  
Dekolorazioa  
Aurpegiko tratamenduak

**Kale nagusia , 8 Telf.: 943 363 641**



# Txirrikitutik

Uda iritsi da eta horrekin batera Euskal Herri osoan jaiak leku guztietan topatuko ditugu. Herri jaietz gain, gure herrian, kirol txapelketak nonnahi ikusteko aukera dugu, pilota partidak, esaterako. Herriko gazteak indarrez dabilta pilotari jo eta jo ahalik eta partidu gehien irabazten ahaleginduz.

Pilota gaitzat hartuz, ondoko argazki hau aukeratu dut, Anoetako pilotalekuan bizi izandakoa gogora ekarriz. 1992ko uztailan Gipuzkoako herrien arteko pilota txapelketaren finala ospatu zen Usurbil eta Segura artean. Pako Alkortak zuzendutako gazteek txapelketa irabazi zuten eta bertara gerturatu ziren herritarrek jai giroan ospatzeko aukera ederra izan zuten.

Pilotalekua pankartez betetzeaz gain, herriko pilotariak txaranga paregabearekin animatu zituzten. Argazkian ikusten duzuen da hain justu txaranga paregabe hori. Hona hemen txaranga fenomenoak: Inaxio Usarralde, Mikel Elepe, Ramon Uribe, Iker Muguruza, Ibon Beristain eta Olatz Matxain. Ziur nago duela 12 urteko argazki honek oroitza-pen polita ekarriko diola bati baino gehiagori.



ARGAZKILARIA: JAVIER GALLEGU, 1992KO UZTAILA  
JABETZA: EGIN EGUNKARIA  
ANOETAKO PILOTALEKUA, DONOSTIA

Zalao Arnaiz Ibaguren

**OHARRA:** Herriko argazki zaharren bat etxean baduzu eta NOAUA!ko Txirrikitutik atalean ateratzea nahi baduzu, jar zaitez gurekin harremanetan, NOAUA! Kultur Elkarteke egoitzan gaude. 943 360 321 telefonoan edo fototeka@noaua.com e-postan aurkituko gaituzu.

## N u !

**Argitaratzailea :** *Noaua!* Kultur Elkartea

Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil (Gipuzkoa)

Tlf.: 943 36 03 21 Fax.: 943 37 25 02

elkartea@noaua.com

erredakzioa@noaua.com

publizitatea@noaua.com

Web orria: www.noaua.com

**Koordinatzailea:** Imanol Ubeda

**Publizitatea:** Maialen Saez

**Kolaboratzaileak:** Lontxo Zubiria, Oxkar Santamaria, Maria Angeles Arruti, Maria Jesus Urbietta, Jone Eizmendi, Ekiñe Olaizola, Iñaki Labaka, Amagoia Mujika, Xabier Arregi, Pako Agudo, Alfontso Vidal, Alazne Begiristain, Ana Urdangarin, Joseba Pellejero, Ainara Uribe, Eider Jauregi, Mikel Bengoetxea, Agustin Esnaola, Eneko Harreguy, Salome Portu, Pello Aranburu, Joseba Zubeldia, Imanol Goenaga, Andoni Udabe, Eukene Kamino, Aloña Pulido, Isaak Muñoz, Olatz De Miguel, Iñaki Agirresarobe. Denborapasak: LUMA, O.E.

**Bazkidetza:** Aitziber Aranberri

**Erredakzio Kontseilua:** Imanol Ubeda, Zalao Arnaiz, Maialen Saez, Agurtzane Solaberrieta, Joxe Luis Arrastoa.

**Informatika:** Topaguneko informatika zerbitzua.

**Banaketa:** Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo

**Elektrikaria:** Iñaki Salsamendi

**Tirada:** 2.600 ale

**Lege-Gordailua:** SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

**Inprimategia:** Antza

Noaua! hamaboskariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

**Noaua! Kultur Elkarteke jendaurreko ordutegia:**  
10.00-14.00 / 16.00-20.00 astegunetan

AZALA

Maiatzean Zubietan eginiko martxaren irudia

## Aurkibidea

LANBIDE HASTAPEN TAILERRAK \_\_\_\_\_ 5. URR.

BERRIEMAILEAK KALEJIRAN \_\_\_\_\_ 6. URR.

ERRAUSTE-PLANTEK KEZKA ERAGIN DUTE \_\_\_\_\_ 10. URR.

HASI DIRA SAN JOANAK \_\_\_\_\_ 12. URR.

Kalezar festa-giroan da egun hauetan. San Joanak amaitu orduko, Santixabelak hasiko dira. Gehigarri berezian bildu ditugu jaietako ekitaldi guztiak.



NEKAZARITZA ETA LANDA LURRA HIZPIDE \_\_\_\_\_ 14. URR.

PLIS, PLAS, TXALO TA JOLASEKO IRUDIAK \_\_\_\_\_ 16. URR.

USURBILDARRAK XIBA TXAPELKETAN \_\_\_\_\_ 17. URR.

EKTITALDI GARRANTZITSUENAK \_\_\_\_\_ 22. URR.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria

Euskal presoak



Euskal Herrira!

## Zutabea !



## Jonathan edo Ane? Larrosa ala urdin argia?

NEREA ZINKUNEGI

Mikel edo Mattin?, Vanessa ala Malen?, Aitor eta Macarena, edo Jose Luis eta Miren?, Unax, Andoni, Maider, Jon, Maria...ai ama!!

Jaio berria da Sara eta gurasoek, ez da monoparentala, larrosaz margoturiko gelatxoa prestatu diote hogeitalau urte dituen ordaintzen bukatuko duten etxe berrian.

Ai jaio zenean... hiru kilo zazpiheun eta berrogeita hamar gramo, ume eaaaarra!! (urruxa bailitzan), hiru kiloz azpikoak eskas samarrak izan, aidanean.

Marrubi izozki erraldoia dirudi Sararen seaskak, eta armairuak, eta kotxe-kapotak, eta...Sara berak.

Auzokoek, ez dute oraindik gehiegi elkar ezagutzen, pisu berriak...badakizu... marrubizko izozki korpilduna bultzaka ikusten dituzte gurasoak pasieran eta haurraren izena jakin ez arren, jakin badakite Aitor edo Unai ez dela bertan "aguuuuka" doana.

Nola dezake kolore batek gizakiaren generoa markatu? "Arraroa" egiten zaigu Iñaki larrosaz jantzita ikustea...

Barka, baina...generoa hanka tartean ditugun genitallek markatzen dute.

Nere uste apalean, ez dago gizon femeninorik ezta emakume maskulinorik ere. Generoarena norberak dakarki belarritako zuloak egin edo ez egin.

Izan ere, oraindik ez da josi naizena baino femeninogoa egingo nauen gonarrik, ezta josiko ere, baina ez da josiko zarena baino maskulinoagoa egingo zaituen mahoizko galtzik ere.

Bart gauean Xangarin izeneko pertsonatxo bat jaio da. Bi kilo eta zazpiehun gramo, eaaaarra!!! Body zuriak ditu (ez dago merkatuan beste kolorerik aukeran), pijama berdea, gorria, urdin iluna,...Bere logelatxo laranja, atea irekita dituela, ortzadarra dirudi...

Ainhoa Azpiroz - Aitor Landaluze - Jakoba Errekondo - Luis Aranalde - Nerea Zinkunegi - Idoia Torregarai

## Ika-mika !

## Euskal Txokoak

Euskal Txokoetan 2003-04 ikasturtea amaitzen ari garela eta, datorrenaz (2004-05) galdetu diegunean begiraleei, harriturik geratu gara Udaletxeak zerbitzuari jarraipenik emateko asmorik ez duela jakinarazi digutenean.

Gure seme alabek ez dute izan etxean euskera ikasteko zorterik, gurasoak ez baitakigu. Denoi gustatuko litzaiguke jakitea baina, batzuo gure semei opa ez diegun esfortzua kostatzen zaigu, bai baitakigu euskera beharrezko hizkuntza dela elkarbizitzeko edota Ikastolan arazo akademikorik ez izateko. Ikastola eta irakasleak dira Euskal Txokoetara joateko gomendioa egiten digutenak. Beraiek dira, hizkuntzarekiko eta lagunekin euskarazko harremanetan hobekuntzak nabariak direla azpimarratzen

digutenak.

Badira urte batzuk, Udaletxeak ikastolarekin batera, errealitate honen aurrean zerbitzu baten beharra ikusi zuela. Ikastolak, ezin du integrazioaren pisu guztia bere gain hartu eta urte pasa ahala ikusi da, Euskal Txokoek planteatzen diren beharrei erantzun bat ematen dietela.

Badirudi Udaletxeak ez dituela behar hauek ikusten eta integrazioarekiko ez duela apusturik egiten. Proiektu hau martxan jarri zenean ikusi ziren arrazoak eta helburuak egun, berdinak izaten jarraitzen dute. Eta urtez urte, haur gehiago joaten dira Txokoetara gure seme alaben etorkizuna gure esku dagoela bai baitakigu.

Ezezagun zaizkigun beste proiektu batzuetaz hitz egiten da. Martxan ez dau-

denak eta luzarora abiatuko diren proiektuak. Funtzionamenduan jarri arteko denbora honetan, zergaitik ez jarraitu Euskal Txokoekin? Nola emango zaie erantzuna aipatutako beharrei? Ez al dugu zerbitzu hau merezi? Ez al dagokigu denei esfortzu bat egin eta ahal diren laguntzak eskeintzea euskara ikasteko? Gurasoak laguntzak jasotzen ditugu euskara ikasteko (euskaltegian...) eta gure seme alabak, Txokoetra joan gabe geratuko dira aurrerantzean?

Galdera guzti hauen aurrean informazio gehiago izatea gustatuko litzaiguke eta erabaki hau, informazioa eman aurretik hartu dutenekin bilera bat eskatzen dugu.

Euskal Txokoetako gurasoak

IKA MIKA ATALEAN PARTE HARTU NAHI BADUZU, GOGOAN IZAN IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITUELA.

**Hurrengo alea:** uztailak 9. Idatzia ekartzeko **azken eguna:** uztailak 2.

**Postaz:** Noaua! Kultur Elkartea - Borda Berri, 3 Eguzkitzaldea - 20170 Usurbil - **E-postaz:** erredakzioa@noaua.com

# Martxan dira lanean ikasteko tailerrak

**L**anbide Hastapeneko Tailerrak 16-21 urte bitarteko gazteei zuzenduta daude. Langabezi- an dauden gazteei, D.B.H. graduatua lortu ez duten ikasleei edota lanbide bat ikasi nahi dutenei zuzenduriko ikastaroak dira hauexek. Ikasitakoa, gainera, praktikan jartzeko aukera dute ikasle guztiek. Ikasketak urrian hasiko dira baina izena emateko epea zabalik dago jada.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila eta Andoain, Astigarraga, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbil herriek adosturiko lankidetzaren hitzarmen bati esker, 21 urte bitarteko gazteek lanbide bat ikasteko aukera dute.

Aginagako tailerreen bi ikastaro hauek eskainiko dira:

- Sukaldaritza/gozogintza.
- Ile-apainketa/edergintza.

Lasarte-Orian, bi hauexek:

- Igeltseritza/ teknika berriak.
- Zurgintza eta egurra.


Andoainean, aldiz, beste bi hauek:

- Automobilaren karrozeria.
- Galdaragintza / Soldadura.

Baina Usurbilgo gazteek Aginagan ez ezik, Andoain eta Lasarte-Oriako tailerretan ere izena eman dezakete. Ikastaro hauetan bakarrik 16-21 urte bitarteko gazteek izango dute aukera: DBH graduatua lortu ez dutenak, langabezi- an dauden edota lanbide bat ikasi nahi dutenak.

## Bi urteko ikastaroak

Lehenengo ikasturtea urrian hasi eta 2005eko ekainean amaituko da. Ikasleek



SUKALDARITZA ETA GOZOGINTZA IKASTAROA AGINAGAKO TAILERREAN ESKAINTZEN DA.

1.000 orduko oinarritzko formakuntza teoriko-praktikoa jasoko dute. Ikasturte horretan jorratuko diren arloak hauek izango dira: tailerra, lanbide teknologia, oinarritzko heziketa, arlo sozio-laborala, enpresetara txangoak, kirola eta ekintza osagarriak.

Metodologi gisa, talde-txikietan bilduko dira ikasleak, irakaskuntza zeharo individualizatua izan dadin. Hau da, ikasle bakoitzaren premia berezien arabera heziketa individualizatua eskaintzen dela, alegia.

## Praktikak inguruko enpresetan

Bigarren ikasturtea 2005eko urrian hasi eta 2006ko apirilean amaituko litzateke. 550 orduko bigarren kurtsoan hauek izango dira sakonduko diren arloak: tailerra, lanbide teknologia, oinarritzko heziketa, enpresekin harremanak eta lan munduari begira burutzen diren ikastaroak (lana

bilatzeko teknikak, eta abar). Osagarri modura, 2006ko apiriletik uztaila bitartean eskualde mailako lantegietan 450 orduko lan-praktikak egingo ditu ikasle bakoitzak.

## Ikasketa arautura itzultzeko aukera eskaintzen zaie ikasleei

Honez gainera, ikastaro hauetako ikasleei berriro ikasketa arautura itzultzeko bidea zabaldu ohi zaie: DBH graduatuak eskuratzeko laguntza eskainiz edota Lanbide Heziketan sartzeko aukera zabalduz. Hori lortzeko, bi urteko epea dute (lehen eta bigarren ikasturtean zehar). Banakako tutoretza bitartez formakuntza teorikoa ere ematen zaie. Eta ikaslearen motibazio eta animoarekin emaitza onak lortzeko aukera zabalduko da.

Bertan, lanbide bat ikasteaz gainera, lantegietan praktikak egiteko aukera zabalduko da.

**gorriti**  
EDARITEGIA

**kafe berezia**

San Esteban kalea, 8  
TLF 36 27 70

20170  
USURBIL

KONPONKETAK  


**ALDAMU**

Giltzak  
kopiataren  
ditugu

Zapatak  
kanpinak,  
etab...

Kale Nagusia, 10 Tel. 943 372 795

**MIKEL**  
**IZ GI E**

**ELEKTROTE**

0 11 7  
R le

el 11 - 11 111

IÑAKI  
LABAKA

Txokoalde

## Erroizpe elkartearen geroa

Ekaineko aurreneko igandean Erroizpe Elkarteko bazkideak batzar nagusira deituta zeuden, hamaikak eta erditan lehendabiziko deialdia eta ordu erdi beranduago bigarrena. Bertara hurbildu zenak, hasi bitartean, kontu kontari lagun artean salda katilu eta nahiko txorizo eta haragi egosia jateko aukera eduki zuen. Ohi den baino bazkide kopuru handixeagoa gerturatu zen.

Zuzendaritza batzordeko kideek egoitzaren inbentarioa banatu zuten, bazkideei egoera ekonomikoa azaltzeko. Nolabait itxurosoa zenez kuota aurreko urtekoa mantentzea erabaki zen, 95 eurotan geldituz. Gero lokalarekin zertan ziren azaldu nahi izan zuten.

Jakina denez, Erroizpe Elkarteak 1955 urtez geroztik Osasuna etxeko beheko solairua okupatzen du errenta bat ordainduz. Hurrengo urteko martxoan eskubide hau galduko du. Jabeak etxe osoa saldu nahi du. Egin duen lehenengo eskaintza garesti xamarra iruditu zaie, baino ondo aztertu etxearen egoera, kontuak atera ze kostatuko

litzaiokeen bazkide bakoitzari erostekotan eta ze erantzuna ematen zaion jabeari beste bilera batean erabakitzekotan gelditu ziren han bildutakoak.

Auzoko bazkideak bere urduritasuna agertu zuten, bazkideak erostera animatuko ez balira eta azkenean egoitza galduko balitz, bere burua kategorian ikusten zutelako. Gure auzoan ez dago tabernarik ezta zaharrentzako egoitzarik ere. Elkarteak bete ditu askotan bi bete behar hauek. Jubilatu bakanak eguerdian hortxe pasatzen dute bazkal aurreko ordua eta gauean berriz sarritan gizon eta emakume, kartetan *jo ta fuego* hor aritzen dira.

Beti izan da Urdaiaga aldeko elkartzeko gunea. Afari moko bat egitea bururatu eta herrira mugitu behar ote duten bere buruari galdezka hasi da, bat baino gehiago. Herriko beste auzotan arazo hau Udalak nolabait konponduta dauka, zaharren egoitzak dauzkalako. Hemen lokalari ez bazaio heltzen, auzoko zaharrak etorkizuna zeharo iluna daukate.

## Festak

EKIÑE  
OLAIZOLA

Kaleberri

Kaixo laguna! Uda iritsi dela! Pentsa eta pentsa aritu naiz, baina ez dut lortu. Udari buruzko kanta baten bila ibili naiz hemen zuei eskeintzeko, baina ez dut aurkitu. Zergatik ote? Udak ez al du zer esanik? Agian "guztiok" oporretan gaudenez, inork ez du lan horretan hasteko betarik hartzen. Berdin dio, ni ez naiz honetaz hitz egitera etorri, baina bai udako gai bati buruz: festak!

Kritikatxo bat egin nahi nuke aurtengo Usurbilgo festen egitarauaren inguruan.

Gauza berri "ugari" dago eta niretzat atseginak, baina bada bat zehazki lotsagarria deritzadana: umeak ere, oilasko biltzailetan irtetea. Eurek badute umeen egun bat, beraiei eskeinitako egun bat eta gazteok ere badugu gure oilasko biltzaile eguna, beraz, zertarako muturra sartu haiena ez den egun batean? Oilasko biltzaileen eguna "heldutasun" froga bat zen, 16 urteak betetzeko zain egoten ginen oilasko biltzen ateratzeko eta orain, haurrak ere bertaratzen badira... xarma hori galduko du. Gainera lehen haurrak gure ikuskizuna-

ri so egoten ziren eta aurten beraiek ere, protagonista izango dira. Jada ez da gazteon festa.

Onartu beharra dut neu ere, ia 18 urterekin, ume mukizu bat naizela oilasko biltzaileetan hamar urte daramatzatenentzat eta eurei ere, gogorra egiten zaiela urtero ume gehiago kuadrilari sartzeko eta zaharrenak erretiratzeko hastea, beraz ni ez naiz egokiena umeak oilasko biltzaileetan irtetea kritikatzeko, baina aukera egokitu zait eta aprobeztatu egin behar.

Azkenik, beste gauzatxo bat azpimarratu nahi nuke. Festen egitarauan zer egun dagokie 40 urte inguruan dabiltzanei? Zaharren Eguna? Gazteena? Nik uste inguru honetako gehienek gustora hartuko luketeela Xabier Lete edo iparraldeko edozeinen kantaldi bat frontoian edo kiroldegian eta eserita, noski. Hainbesteko lana al da honelako zerbait antolatzea? Ni bileretan egon ez naizenez, ezin dut gehiegi esan, baina datorren urterako bi gauzatxo hauek kontuan izatea eskertuko lukete herritar askok.

Laster arte.

## Ondo pasa jaietan

**K**aixo auzotarrak! Dagoeneko festa giroan murgilduta egongo zarete. Ondo pasa jaiak, disfrutatu eta animatu zaitezte parte hartzera. Bota al dituzue sutara gauza txar guztiak? Lehen gazteago ginenean nere lagunak eta nik paper batean idazten genituen guztoko ez genituen sentimenduak, jarrerak, gaixotasunak... eta San Juan gauean erretzen genituen. Milagrorik ez dela gertatzen konturatzeko balio zigun, bertan jarraitzen baitute guztiak. Esperantza behintzat hor daukagu, agian, egunen batean...

Egun hauetan, Peña Pagola bihurtuko da auzoko taberna, soziedade urtean zehar, baina hau ere txikia geratzen ari da. Gero eta lagun gehiago dago elkarteetan, udan terraza dela eta jende kopuru handiagoa onartzen du baina neguan izaten dira komeriak. Lastima lokal ederragoren bat ez izatea, egokiena Markesaren etxea izango litzake, ezta auzotarrak? Ados denak, ezta? Ja, ja, ja... Elegante



elegante, bi pixutakoa, eraikuntza historikoa... beno oraindik jabeak direnak ( Juan, Joxe, Juanito, Pakita...) ez daitezen haserretu, eh? Ja, ja, ja...

Beno ondo pasa San Juanak, baina pasa gabe, eh? Elkar ikusiko dugu auzoan.

Kalezar



AINARA  
URIBE

## San Juanak

**L**ehenengo eta behin, ongi etorri gure kronista berriei. Bazen ordua jende gehiago animatzeko! Eta zenbat eta gazteagoak hobe gainera, ideia eta albiste freskoagoak izango baitituzte. Hala ere, ez litzateke gaizki egongo mutil edo gizonen bat animatuko balitz, emakumeak bakarrrik izan gabe; ba... aurrera nahi duzuenean.

Beste gai bati helduz, udan bete-bete sartzeko gara egun hauetan, egunak luzeenetakoak direnez, arobetza dezagun hondartza inguruak zapalduz, eguzki goxo eta bainu frexkoak hartzeko, on egingo digute.

Horrez gain jaiak ere gainean ditugu; San Juan bezperako sua. Zerbait kentzeko baldin badugu etxean, suak erretzeko arobetxatuko dugu. Baserri edo auzo guztietan piztuko da sua, baina usurbildarrontzat Kalezargoak du osperik handiena, batez ere San Joanen ermita dagoelako eta jaiak ospatzen jende gehiago hurbiltzen delako. Besrtso koplak eta trikitia ere ez zaizkigu faltako; gaur polita benetan.



Kalezarren hasi eta Kaleberriko jaiak bukatu arte, izango dugu zer ikusia edo zer entzuna.

Jan edanik ez dadila falta, ez etxean ez kanpoan eta dantzatu nahi duenak ere izango du aukerarik. Ez ahaztu herriko jaiak urtean behin izaten direla eta ondo pasatzea dela garrantzitsua, adinari aitzakiarik eman gabe, hurrengo urtean bat gehiago izango baitugu. Ondo pasa denok.

Atxegalde



JONE  
EIZMENDI



PAKO  
AGUDO

Santuenea

## Hasi dira jaietako bilerak

Azkenean gure auzoa normaltasunera itzultzen hasi da. Denok dakigu gutxi gora-behera auzokideen ogibideak zein diren eta gehienak, erai-kuntzaren greba dela eta, azken egun hauetan zehar ikusi ditugu zer egin ere jakin gabe.

Santuenea auzo txikia dugu baina azken hilabete honetan greba jarraitu duenak konturatuko zen auzo honi zenbat kalte egin dion. Egoera oso desberdinak ikusteko aukera izan dugu gure auzotik atera gabe. Gertu gertutik bizi dugu Ingemarreko langileen egoera, eta ez bakarrik lantegia ondoan dugulako, auzokide askok bertan lan egiten dutelako baizik.

Bestalde eraikuntza enpresetan lan egiten dutenak ere grebari jarraitu diote, autonomoak ere jasan dituzte ondorioak. Beraz, auzo osoa ia geldirik izan dugu azken hilabeteetan.

Momentuz lanean hasi dira berriro, baino negoziazioak oraindik ez dira bukatu, urtea bukatu edota akordioa lortu arte jarraituko dute. Azken akordiora ez badira iristen seguruenen berriro ere grebara jo beharko dute. Auzokide asko abuztuan bertan geratuko direla iruditzen zait; ea gabonak lasai pasatze-



ko aukera duten.

Udaren sarrerak ere, beste kontu lasaiagoak ere utzi dizkigu. Azken aste hauetan oso oparoak izan dira seme alaben kontuak! Zorionak guraso berri guztioi.

Gogoratu jaietako bilerak ere hasi direla. Norbaitek parte hartu nahi badu, Ibai-Ondora gerturatu dadila, lehenbizikoa ekainaren 19an egin zen.

## San Joan suaren ahalmena



EIDER  
JAUREGI

Urdaiaga

Urteko gaurik laburrena da San Joan bezperakoa baina udako ospakizun zabalduena dakar berarekin. Aspaldiko ohiturei jarraiki, herri, auzo eta txoko askotan piztu ohi da San Joan sua. Kalezarren ez ezik, gainontzeko auzoetan ere ikus daitezke San Joan suaren sugarrak. Baserri askotan aspaldikoa da sua piztearen ohitura.

Akaso San Joan suak gaitz guztietatik libratzeko ahalmena duela diolako herri sinesmenak. Baina ezezagunagoa zaigu urari eman izan zaion garrantzia. Juan Garmendiak "Udako Festak" aipatzen duenez, "ura sorkuntza-elementu garrantzitsua da, eta udako solstizioan ahalmen garbitzaile berezia du".

Oso zabaldua dago, halaber, San Joan goizean etxeko sarrerako atearen bi aldeetan, elorri zuri eta lizar adartxo bana, elkarren ondoan edo gurutzea osatuz jartzeko ohitura. Elorri zuriak eta lizarrak, tximista eta trumoiak uxatzen dituztela dio Juan Garmendia historialari eta etnografoak "Udako Festak" liburuan.





## Bizkaiko Bolibar: hau inbiria!

**B**izkaian ba omen da guk bezagutu ere egiten ez genuen auzo bat Bolibar izeneko. Izen hori zuen –Simon Bolibar- Hego Amerika askatu zuen buruzagiak ere, eta Venezuelan Chavezen gobernuak konstituzio “bolivariano” bat egin zuen duela gutxi. Bolibar hau Aginaga baino txikiagoa da eta garai batean herri izan bazen ere gaur egun Markina-Xemeingo udalari lotuta dago administrazio aldetik.

Orain dela gutxi jakin dugu erreferenduma antolatu dutela bolibartarrek Markina-Xemeindik bereizteko. Bolibarko biztanleen %90ak bereizketaren aldeko boza eman berri du.

Aginagatarrengatik kontaktzen dute ez dakit



zein santuk inbiriaz beteta zeuzkan zakuetatik asko Aginagan zabaldu zituela. Fama hori jarri digute. Inbiria kontua izango da igoal, baina Bolibar, Igeldo, Astigarraga lehenago (eta honek bereiztea lortu zuen), Itziar... horrelako kasuak entzuten ditugunean Aginaga eta Usurbilen arteko kontuez gogoratzen gara hemen.

Bolibar famatua bada, Aginagan ere baditugu angelak aspalditik, eta azken aldian piperrak. Aginaga, Usurbil, independentzia... Beti serio hitz

egiten aritu gabe, bururatu zait egun batean udal izatera iritsiko bagina, eliza zaharra ez litzatekeela txarra izango udaletxea bertan ipintzeko. Usurbildarren baimenarekin, noski.

Aginaga



LONTXO  
ZUBIRIA

## Errauste plantaren aurkako manifestazioa

**J**oandako larunbatean, errausketa plantaren aurkako plataformek, instalazio hauen kontrako manifestazio batetara dei egin ziguten herritarrei.. Hainbat plataformak deituta, (Arnasa, Txingudi Bizirik etab), jende ugari bildu zen Donostian, arratsaldeko seiretan. Zubietako plataforma ere, bertan zen, izan ere, asteen zehar buzoneatu baitzuten herri guztia, ekitaldi honetarako gonbitea luzatuaz.

Lau t'erdietan zen hitzordua hipodromoan, eta antolakuntza txukun baten ondorioz, autobus bat zubietarrez beteta abiatu zen Donostiara bidean, heldu, gazte eta ume, denok helburu batekin, hots, Diputazioko agintariei adieraztea, planta hauek dakartzaten osasun arriskuak ez direla txikiak (hainbat medikuen iritziz) eta beste irtenbide batzuek aztertu ditzatela, hondakinen tratamendurako.

Manifestazioa hasteko zenean, hortxe hasi

zen euria barra-barra, baten batek pentsatu zuen, ez ote zen izan Diputazioaren gestioaren bat, justu ordu horretan hasi baitzen euria ... Hala ere, eguraldiak ez zuen zapuztu jendearen gogoga, eta normaltasun osoz, Boulevardetik hasi eta hainbat kale zeharkatu ondoren, Gipuzkoako plazara iritsi zen eta bertan, bukaerako adierazpen batekin eman zitzaion amaiera protesta ekitaldiari.

Deigarria iruditzen zait, zenbat komunikabideetan zer nolako oiartzun txikia izan zuen deialdiak. Badirudi, gai honetan, erakunde publikoek presio mediatiko handia ari direla egiten protesta ekimenak urrutira joan ez daitezten, presa handiarekin ari dira instalazio hau lehenbailehen egiteko, hautsa gehiegi harrotu gabe, eta kaleko jendea konturatu orduko, berandu izango da...gure osasuna dago jokuan, hainbat medikuen eta adituen ustetan.

Zubietza



MIKEL  
BENGOETXEA

# Errauste plantaren egitasmoak kezka eragin du, bereziki, Zubietan

**Z**abortegienak egin du. Hiri hondakinek sortzen duten arazoari aurre egiteko, Foru Aldundiak bi errauste planta ezarri nahi ditu. Horietako bat, Txingudin ipiniko litzateke; eta bigarrena, oraindik zehaztu ez den kokagune batean. Laster jakingo dugu Foru Aldundiaren erabakia. Bien bitartean, zurrumurruek Zubietara, Oriora, Arroara eta Erreteriarara garamatzate. Juanjo Olaizolaren eskutik, Zubietako Herri Batzarraren iritzia bildu nahi izan dugu.

**NOAUA!** Arroa, Orio, Erretereria eta Zubietako izenak atera dira. Zer nolako ziurtasuna dute zurrumurruek hauek?

Juanjo Olaizola. Kokagunearen inguruan ziurtasunik ez da. Ez dakigu han edo hemen ipiniko duten. Izen horiek Foru Aldunditik datoz; Foru Aldundiaren barrenean dabilta izen horiek. Ez horiek bakarrik, baita izen gehiago ere. Beste izen batzuk ere badira, baina ezin dira kontrastatu. Adibidez, Oliden. Beste kokaguneez, ordea, badute "zentsurik".

**N. Hipotesiei helduz, zergatik Erretererian?**

J. O. Erretereria, dagoen lekuan dago-elako, Irun, Hondarribia eta zonalde horren bueltan. Kontuan izan Txingudin ere enfrentamendu ugari sortzen ari dela, eta Txingudiko erraustean plantaren kokagunea ez dago uste bezain argi.

**N. Eta zer du Arroak ustezko hautagaien artean egoteko?**

J. O. Arroa herriak zementera bat izan du duela gutxi arte. Zementera hori desegin egin da eta ez dute ezer egin. Gauza pilo bat egin behar zituztela agindu zuten baina ez dute ezer egin. Bestalde, kokagune txarra ez da. Gipuzkoa erdialdean dago. Arrasate eta inguru hori ondo harrapatzen du. Autopista irteera ere bertan dauka eta Donostiarekin konexio onak ditu. Herria, gainera, ohituta dago sufritzen, zementera duela gutxi arte izan dute...

*"Zurrumurruen arabera, "Ciudad del Transporte" delakoan, N-1 errepide alboan dagoen lur-eremu zabal horretan kokatuko litzateke errauste planta"*

**N. Zurrumurruekin jarraituz, Zubietako aukerak ze logika izan dezake?**

J. O. Estrategikoki oso leku ona da. Orokorren begiraturik, oso gutxi bizi gara Zubietan. Aurre egiteko ahalmen politiko gutxi dugu gainera. Gure irtenbidea inguruko herrietatik etorri daiteke, Lasarte-Oria eta Usurbildik. Lasarte-Oriako herria nahikoa indarra egiten ari dira, ez ordea, agintariak. Agintariak ez dute ezer esaten.

Gai hau, hasiera batean, mankomunitate guztien eskuetan zegoen, baina herrietan konfrontazio handia sortu da eta Foru Aldundiak beretzat hartu du gaia.



JUANJO OLAIZOLA, HERRI BATZARREKO HAINBAT KIDEREKIN BILDUTA.

**N. Beraz, Foru Aldundia izango da errauste planten kokalekua zehaztuko duena.**

J. O. Foru Aldundiak une honetan erabakita dauka baina ez du esaten. Zozketa bidez zehaztuko direla kokaguneez esaten ari dira. Bederatzi kokaguneez artean zozketa bat egingo dutela, baina ez da egia. Ezin da teknikarietan, proiektuetan hainbeste diru gastatu eta gero zozketaz egingo dela esatea. Hori herriari parre egitea da.

**N. Zozketa horretan, Zubietak "boletu" asko izango lituzke?**

J. O. Zubietan zergaitik? Badago beste arrazoirik. Donostiak Zubietan une honetan duen ahalmena handia da, edozer gauza egiteko ahalmena dauka. Hein handi batean, zubietarrok eman geniona. Etxebizitzak herritarrentzat egitearen ordainetan, deslindea egitera-

M N  
H TEGI  
Or /  
r r' 3  
Usur 1 3 2 7

Berezitasunak  
Txerrikumea,  
Txuleta eta Arraia

Aginaga  
☎ 36 27 73

**SEKAÑA**

E un k z k r k  
**ETXE ESTE  
J TETXE**  
Or /  
USURBILGOFESTETAN!  
n ☎ 3 3 27

koan, Donostiako Udalarari nahi zuen guztia egiteko ahalmena eman zitzaion.

**N. Noiz izan zen deslinde prozesu hori?**

**J. O.** Errekurrituta egon da denbora askoan baina duela hiru aste lege bihurtu da. Denbora askoan deslindearena errekurrituta egon da, baina "kongelata" egongo da gai hori. Urtetan ez dute inolako interesik izan. Eta kasualitatez, orain, legez onartu dute deslindearena.

**N. Non jarriko lukete? Zein da zuen susmoa?**

**J. O.** "Ciudad del Transporte" delakoan, Andoain, Zubietako, Lasarte-Oria... ikutzen dituen lur-eremu zabal horretan.



ERRAUSTE PLANTEN AURKA MAIATZEAN EGINIKO MARTXAREN IRUDIA.

## Juanjo Olaizola, Zubietako Herri Batzarreko alkatea: "Inongo bultzakadik gabe osatu da plataforma"

**E**samenak esames, errauste planten aurkako plataformak perretxikuak bezala ugaltzen hasi dira. Urnietako Arnasa izan zen lehena osatzen, eta haren ondotik etorri dira besteak.

Gaur egun, ordea, kokagunea bezain kezkarri bilakatu da errauste-sistemaren balioarritasuna. Ingurugiroaz eta osasunaz ari garenean, alarmak berehala piztu ohi dira. Eztabaida hasi zenetik, errauste planten aldeko eta kontrako iritziak entzuteko aukera izan dugu. Baina errauste sistemaren onurak eta kalteak parekatzean, kalteen zerrenda izan da bereziki gailendu dena. Eta horren ondorioz, kontrako iritzia nagusitu da gizartean. Kontrako iritzi horrek kezka forma hartu du. Eta bereziki, "hautatuak" izan daitezkeen balizko kokaguneetan. Gertuko kasua da Zubietakoa. Baina Arroan, Errenterian eta Orion ere asaldatuta daude herritar asko.

Zubietan, esate baterako, bistakoa da herritarren kezka. Juanjo Olaizolak esan digunez, "gai honen inguruko informa-

zio gehiena zurrumurruen bidez iritsi zaigu. Ofizialki, oraingoz, ezertxo ere ez. Duela hilabete batzuk, Foru Aldundiak Urnietako aukera baztertu zuenean, zera entzun genuen: *Adi egon, Zubietako izan daiteke errausteta plantaren kokalekua*".

Horren aurrean, Zubietako Herri Batzarreko kideak han eta hemen galdetzen hasi ziren. Duela hilabete batzuk, urbanizazio kontuengatik Donostiako udal teknikarekin bildu zen Juanjo Olaizola: "bilera horretan, errauste planten gaiak galdegin genien baina kasurik ez egiteko erantzun ziguten. Mahai gainean jartzen diren gaiak izan ohi direla baina gero kajoira pasatzen direla, eta esamesak baino ez direla... Orduan kezkatzen hasi ginen. Mahai gainean izan bada zeozergatik izango da", azaldu digu Herri Batzarreko alkateak. Berehala, Arnasa plataformakoengana jo zuten informazio eske. Ordutik hona, bi hitzaldi egin dira Zubietan. Errauste planten egitasmoak eragin duen kezkarri aurre egiteko osatu da Zubietako Plataforma. "Inongo bultzakadarik gabe sortu da, bere kabuz hasi da lanean", aitortu digu Juanjo Olaizolak.



**Urtinea**

I r k - I r l n r k

L r s r l k - K r k

San Esteban

Tlf.: 943 36 22 55



ARRAINDEGIA  
**PELLO**

ET: xKI /  
T13 21  
JGU L



**M N  
CENILL**

k r - n t u r i  
t l l n k  
r z t z - l u k  
r t u r - l u k r l r

ristitxo, 8-5.a 20170 USURBIL

MOBILA: 629 46 09 66

# Hasi dira San Joanak

**S**an Joan sua piztu da. Orduetik jai-giroan da Kalezar auzoa. San Joan bezperan, arratsaldean, hasi ziren gazteak eskean. San Joan suaren ondorenean ere, ordu txikiak arte luzatu zen eskearen ohitura. Jaiak hasi besterik ez dira egin. Oraindik bada zer ospatzekorik.

Ekainaren 27a bitartean, ekitaldi ugari gozatzeko aukera dago Kalezarren. Ekainaren 26an, esate baterako, Oilasko Biltzaileen Eguna izango da. Ekainaren 27an, berriz, Umeen Eguna. Ondo



SAN JOAN SUAREKIN BATERA HASI ZIREN KALEZARGO JAIAK

pasau eta gutxi gastau! Santixelak gainean ditugu-eta!

## Ekitaldi ugari Kalezarren

Ekainak 24, osteguna

San Joan Eguna

11:00.-Meza nagusia. 12:30.-Toka txapelketa. 18:30.-Auzotarrek eskainitako soka dantza. Ondoren, sardina eta sagardo dastaketa, txistulariek girotua. 22:30.-Erromeria, Ansorregi eta Larrañaga.



Ekainak 25, ostirala

19:00.-Buruhandiak trikitilariak alaiturik. 20:00.-Auzotarren arteko herri kirolak. 23:30.-Trikitakerekin dantza saioa.

Ekainak 26, larunbata

Oilasko Biltzaileen Eguna

06:00.-Oilasko biltzaileen irteera. 14:00.-Bazkaria. 16:00.-Mus txapelketa. 18:00.-Herriko dantzarien emanaldia. Ondoren, buruhandiak trikitilariak alaiturik. 22:00.-Bertso-saioa: Xabier Legarreta, Jon Martin, Iñaki Gurrutxaga, Manex Mujika. Ondoren, Izotzekin dantzaldia.

Ekainak 27, asteartea - Umeen eguna

10:00.-Umeen krosa. 11:30.-Jolasen hasiera. 16:30.-Tailerrei hasiera emango zaie. 18:00.-Gorritiren showa. 20:00.-Buruhandiak.

2004KO

KONTRIBUZIOA

ORDAINTZEKO GARAIA

2004. urteko Ondasun Higiezinaren gaineko zerga (kontribuzioa) maiatzaren 15etik uztailearen 5era bitartean ordaindu beharko da.

Zergapekoak domiziliaturik edo helbideraturik daukan kasuan, uztailearen 1ean kargatu-kontu dira kontu korrontean.

Domiziliatu gabeko kasuetan, Ordaintzeko agiriak zergapekoen helbide fiskalera bidali ditu Udalak, Kutxa, Euskadiko Kutxa, Gipuzcoano banketxean edo Usurbilgo Udaleko zergabilketa bulegoan ordaintzeko aipatu agiria aurkeztuz.

Hurrengo urtetik aurrera, domiziliatzeko agindua emateko aukera dauka zergapekoak.

Uztailearen 6tik aurrera, premiamenduzko prozedura aplikaturik, dagozkion gainkargu eta kostak hartu beharko dituzte bere gain, aurrez ordaindu gabeko kasuetan.

## Iruditan!



**E**kainaren 18 San Markesaneke pagoa kendu zutenetik, bestelako itxura du Saroe Jauregiak. Antza, ihartuta zegoen eta horregatik moztu omen dute. Lehenik adarrak kendu zituzten eta ondoren zatika moztu zuten enborra. Gertaerak jakinmin handia piztu zuen.

## Ume bat zain daukazu

**G**ipuzkoan, 600 adingabe inguru ezin dira beren famili biologikoarekin bizi. Desegituratutako familiak dira, hainbat arrazoiengatik. Gehienak harrera etxeetan bizi dira, Gipuzkoako Foru Aldundiaren babespean. Iaz 180 haur, harrera familia batekin bizitzeko aukera eduki zuten. Baina familia gehiago behar dira.

Momentu hauetan, Gipuzkoako 20 adingabek harrera familia bat espero dute. Esther Larrañaga, Gizarte Politikarako foru diputatuak dioenez, "Adingabe hauek harrera familiarik aurkitzen ez badute, egoitza batean haziko dira, eta han ezingo dute jaso familia batean jasoko luketen atentzioa eta goxotasuna".

Harrera familia baten zain dauden adingabeek adin ezberdinak dituzte: haurtxoetatik hasi eta 12 edo 13 urteko nerabeak arte. Batzuk anai-arrebak dira. Harrera familia aldi baterako neurria da (ezin da adopzioarekin nahastu), eta bukatu egingo da familia biologikoaren arazoak amaitzen direnean. Salbuespenak salbuespen, harrera prozesu osoan zehar, adingabeak harremana izan ohi du bere guraso biologikoe-



20 ADINGABE HARRERA FAMILIA BATEN ESPEROAN DIRA.

kin. Familiek zenbait diru laguntza jasotzen dituzte, baina, batez ere talde profesional espezializatu baten etengabeko laguntza eta gainbegiraketa.

**Familia harrerak zer esan nahi du?** Familia harrera legezko neurria da, eta harrera horren bidez adingabearen zaintza pertsona edo familia bati ematen zaio, aldi batean zaindu, elikatu eta hezi dezan, horrela hauraren familiaren osagarri bihurtuz, hark zaindu ezin duenean. Adingabearen eta zaindu ezin

duen familiaren aldeko egintza bat da; baina familia harrerak ez du berezko familia ordezkatu nahi, eta errespetatu egin behar du familia naturala.

### Zein izan daiteke hartzaile?

Familia harrera izateko, ondorengo hauek dira funtsezko baldintzak:

